

TOKIKO AGENDA 21AK EUSKADIN SUSTATZEKO ESTRATEGIA 00/06



garapen iraunkorra
DESARROLLO SOSTENIBLE

TOKIKO AGENDA 21



2002an, Eusko Jaurlaritzak 2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia onartu zuen. Bertan, Europako ingurumen politikarekin bat eginez, epe motzeko, ertaineko eta luzeko hainbat jomuga, helburu eta konpromiso ezartzen dira. Euskal Ingurumen Estrategiako epe motzeko helburuak eta konpromisoak dagoeneko amaitu den 2002-2006 Ingurumen Esparru Programan jaso ziren. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila 2007-2010 epealdirako Ingurumen Esparru Programa lantzen ari da uneotan.

Esparru global horrek herri mailan koordinatutako ahalegina eskatu duela baliatuta, Tokiko Agenda 21ek gure udalerrietan ezarpen maila handia lortu du. Horren erakusle, herritarren %98 Tokiko Agenda 21 programak abian jarri dituzten udaletan bizi dira gaur egun. Gainera, Euskadin dauden 251 udalerrietatik 180 Udalsareako kide dira; hots, Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareko kide.

2001 urtean hiru udalerririk bakarrik zituzten Tokiko Agenda 21 programak. 2006an, berriz, 200 baino gehiago dira. Nabaria da hori ez dela halaberharrez edo zorte onaren ondorioz lortu. Emaitza bikain hori lortzeko arrazoi nagusia elkarlana izan da: batez ere udalerriena beraiena eta udalez gairdiko administrazioena. Sarean egindako lanaren alde egiteak Tokiko Agenda 21 programak indartu ditu, eta udalerriek garatutako ekintzak handitzen dituen efektu katalizatzailea lortu du. Horrek elkarren artean hurbil dauden udalerrien arteko elkarlana erraztu du, baita ohitura onak trukatzeko ere.

2006. urtean 200 euskal udalerririk baino gehiago ari dira Tokiko Agenda 21 programak diseinatzen eta ezartzeko lanean. Prozesua garatuagoa duten udalerriek Udalsarea 21 osatzen dute. Hain zuzen ere, hurrengoa da Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearen zeregina: «Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak eraginkortasunez ezarraraztea, eta udal-kudeaketaren arlo guztietan Aalborgeko konpromisoekin bat datozen iraunkortasun-irizpideak txertatzea, EAEko udalerriek garapen iraunkorreko politikan duten rola eta euskal gizartearen inplikazioa sustatzeko».

Gida hau Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak bultzatutako strategiaren zerbitzura dagoen beste tresna bat izatea nahi da, denon ahaleginekin osatutako Sarea indartzen jarraitzeko.



Esther Larrañaga Galdos
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu
Sailburua

TOKIKO AGENDA 21ek Euskadin izandako arrakastaren hamar gakoak.....	3
1. Euskadiren kokapena eta profil orokorra	6
2. TA21 MUNDUAN ETA EUROAPAN	8
3. EUSKADIN	9
Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 eta Tokiko Agenda 21ak.....	9
Euskadiko gizartearen ikuskerari ingurumenari dagokionez	10
4. ZER DA TA21 EUSKADIKO BIZTANLEENTZAT?	11
Tokiko Agenda 21en definizioa eta funtzioak	11
Tokiko Agenda 21 diseinatzeko prozesua	12
Tokiko Agenda 21 ezartzeko, kudeatzeko eta segimendua egiteko eredua	13
5. AIDA ESTRATEGIA.....	16
Tokiko Agenda 21ak Euskadin ezartzeko AIDA estrategia	16
Informaziorako, trebakuntzarako eta euskarri metodologikorako tresnak	19
Elkarturik Tokiko Iraunkortasuna jartzeko bidean: Udaltalde 21	20
Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea: Udalsarea 21en sorrera eta garapena	21
Udalsarea 21ek garatutako jarduerak eta ekimenak.....	25
Udalsarea 21en etorkizunerako apostua: 2006-2009 Plan Estrategikoa	26
6. ONDORIOAK.....	29
TA21 ABIAN JARTZEKO ORDUAN IZANIKO OZTOPOAK:	29
ETORKIZUNERAKO ERRONKAK	30

TOKIKO AGENDA 21EK EUSKADIN IZANDAKO ARRAKASTAREN HAMAR GAKOAK

Ondoren, TA21ek Euskadin izan duten hedapen arrakastatsuari lotutako hamar faktoreak azaltzen dira. Funtsean, dokumentu honetan garatzen diren edukiak laburbiltzen dituzte.

- 1. Garapen iraunkorreko marko estrategiko batean oinarrituta, TA21en hedapena Euskadiko lurralde osoan zehar.** Euskadin funtsezkoa izan da Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 izatea, zeinak Tokiko Agenda 21en aldeko apustua egiten duen, eta epe luzera begira anbizio handiko helburua ezartzen. Hori dela-eta, alde batetik erraztu egiten du politikak eta administrazioko hainbat mailen ekintzak bateratzea, eta, bestetik, udalerriek TA21en alde egiten duten apustua islatzen du. Horrek guztiak estrategiaren eta eskualdean zein udalerrian iraunkortasunaren alde burututako jardueraren artean koherentzia handiagoa izatea ahalbidetzen du.
- 2. AIDA strategiaren bidez, TA21ak bultzatzeko beharrezko zerbitzuak sortzea.** Marketing estrategikoko tresna honi esker, Euskadiko udalerrri gehienak oso epe laburrean integratu dira Tokiko Agenda 21eko prozesuetan. Sei urteko epean, Euskadiko 251 udalerrietatik 210ek hasi dituzte Tokiko Agenda 21eko prozesuak, eta 138 Ekintza Plana ezartzen ari dira dagoeneko. Udalez gaindiko erakundeek zerbitzuen eta euskarrien aukera zabala garatu eta sortu dute udalerriei Tokiko Agenda 21 diseinatzen eta ezartzen laguntzeko. Zerbitzu hauek udalerriek eginiko eskariak xehetasunez aztertu ostean diseinatu dira, aurrez pilotajeak eginda. Sortu diren zerbitzuetako batzuk: prozesuan hasiberriak direnentzako lan-taldeak, edota aurreratuen dauden udalentsako Udalsarea 21 sariak.
- 3. Tokiko Agenda 21 taldean diseinatzea: Udaltalde 21.** UDALTALDE 21en metodologia TA21en prozesua diseinatzean datza. Fase honetan parte hartzen duen lan-taldea osatzen dute lurralde bereko -normalean, eskualde bateko- udalek, eskualdeko erakunde koordinatzaileak, Eusko Jaurlaritzak eta dagokion Foru Aldundiak. Metodologia honi esker, nabarmen aurrezten da kostuetan, udalerrien arteko sinergiak ezartzen dira, eta emaitzetan hobekuntza handia igartzen da.
- 4. Udalsarea 21, Iraunkortasunerako Euskadiko Udalerrien Sarearen sorrera eta kontsolidazioa.** Udalsarea 21ekin, indartu egin da EAeko administrazio maila ezberdinen arteko lankidetzak, kontsolidatu egin da udalerrien arteko komunikazio-markoa, eta taldeko lanaren eta elkarlaneko sarearen kultura bultzatu da. Sareari esker, lanerako eta komunikaziorako marko egonkor bat (sarearen kultura) osatu da iraunkortasun lokalari lotutako administrazioen partaidetzarekin; horrela, denen artean parteka ditzakete ezaguerak, eta arazoak zein esperientziak elkarri jakinarazi. Sarean parte hartzen duten Administrazioko mailen arteko koordinazioa bermatzen du.


5. **Kalitate-irizpideak aplikatzeko eta udalerrri bat Udalsarea 21en onartu aurretik konpromisoak eskatzeko beharra.** Udalsarea 21eko partaide izateko, Udalak onartuta izan behar du Tokiko Ekintza Plana, herritarrek parte hartu ahal izateko kanal egonkorrak izan behar ditu, arduradun tekniko eta politiko bana izendatu behar ditu sareko batzarretara joateko, eta sareko kideei dagokien urteko kuota ordaindu behar du. Kide izateko, gainera, beharrezkoa da Euskadiko Iraunkortasun Konpromisoan izena ematea eta Aalborgeko Gutuna sinatzea. Gaur egun, Sareko kide diren udalak Aalborgeko Konpromisoekin bat egitea bultzatzen ari dira.
6. **Udalerriek Tokiko Agenda 21en arduradunaren figura sortzearen aldeko apustua egitea.** Tokiko Agenda 21en prozesuek ingurumeneko sail eta arduradunen sorrera bultzatu dute, eta ingurumenak zein iraunkortasunak areagotu egin dute euren garrantzia udal-politikan. Udalek langileak kontratatzekeo laguntza ekonomikoak eskatzen zituzten; izan ere, udalez gaindiko instituzioek ematen dituzten laguntza ekonomikoak ekintzak exekutatzeko dira, baina ez langileei zuzentzeko. Funtsezkoa zen udalerriek iraunkortasuneko arduradun bat izatea, horrela islatuta gelditzen zelako Udalak Tokiko Agenda 21en prozesuaren alde eginiko apustua.
7. **Udalaren kudeaketako hainbat esparrutan iraunkortasun-irizpideak sartzea.** Alderdi honetan oraindik ere bide luzea dago egiteko, baina, hala ere, Tokiko Agenda 21ak lagungarriak izan dira hirigintzako planeamenduetan edota mugikortasunean iraunkortasun-irizpideak sartzeko. Gainera, udalerriak iraunkortasuneko 3 aldagaiak kontuan hartuta aritu dira lanean (ekonomikoak, ingurumenekoak eta gizartekoak). Udalerriko esparruan horrek zailtasunak eragiten dituen arren, irmoa zen hiru aldagaiak sartzearen aldeko eskaera, eta apustua hasia da emaitzak ematen
8. **TA21eko prozesuetan herritarren partaidetzaren aldeko apustua egitea.** Zailtasunak egon arren, Tokiko Agenda 21en bidez herritarrek erabakiak hartzeko orduan parte hartzeko lehengo tresnak sortu dira, eta iraunkortasunaren aldeko heziketa sustatu da. Udalerriek positiboki baloratzen dute iraunkortasunaren aldeko heziketa eta komunikazioa nola sustatu diren, eta baita partaidetzarako espazio berrien sorrera eta partaidetzako kulturaren hazkundera ere, garapen iraunkorreko prozesuak abian jarri baino lehen ia ez baitziren existitu ere egiten. Dena den, alderdi hori etorkizunerako erronka gisa ikusten da.
9. **TA21eko prozesuetan zenbat aurreratu den neurtzearen aldeko apustua.** Udalsarea 21 Sarearen markoan, prozesuen segimendua eta bilakaera neurtzeko tresnak sortu dira, berberak udalerrri guztietarako. Tokiko iraunkortasunaren 12 adierazle, ingurumeneko bederatzi eta ekonomiako zein gizarteko hiru daude. Aurki NEG isurketei dagokien beste adierazle bat ere izango da, eta horretarako kalkulu-tresna bat prestatzen ari dira egun. Bestalde, MUGI 21 tresna informatikoa definitu dute, TA21en kudeaketa integrala ahalbidetzen duena. Tresna honek 4 modulu ditu: bata Ekintza Plana kudeatzeko, bigarrena adierazleak kalkulatzeko, hirugarrena ebaluatzeko eta laugarrena urteko programaziorako.

10. **Alkatetzaren buruzagitza.** Alkateek prozesuaren hasierako faseetatik esku hartzea komeni da, sentsibilizazioaren eta trebakuntzaren bidez, eta baita hartutako konpromisoarekin lotuta dauden ekitaldi instituzionaletan ere. Aldianaldian, Udalsarea 21 sarien deialdia egiten da, eta Euskadiko udalerrien jardunbide egokien dekalogoia eguneratzen. Alkateak eurak dira nazioko eta nazioarteko jardunaldietan parte hartzen dutenak, beren esperientziak azaltzeko. Ahaleginak eta aurrerapenak egin diren arren, datozen urteotan ere lan handia egingo da gako honen gainean, udalerrientzat oinarritzakoa delako.

1. EUSKADIREN KOKAPENA ETA PROFIL OROKORRA

Euskadi Iberiar penintsulako iparraldean dago, Bizkaiko Golkoko inflexioaren erpinaren ondoan. Frantziaren eta Espainiaren arteko muga egiten duen lurralde honek 2.082.587 biztanle ditu, 7.234,8 km²-ko azalera du, eta bertako per capita errenta Europar Batasuneko batez bestekoa baino handiagoa da.

Lurraldearen orografia oso malkartsua da eta dentsitate handia du biztanleen eta jarduera ekonomikoaren aldetik. Horregatik, lurra, baliabide natural bezala, oso mugatua da.



1. irudia: Euskadiren kokapena Europan

Euskadik 251 udalerrri ditu hiru probintzietan banatuta. Udalerrien %3ak besterik ez du 50.000 biztanletik gora; %60ak 2.000 biztanle baino gutxiago ditu.

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
<2.000 biz	45	61	47	153 (%61)
2.001-5.000 biz	3	20	11	34 (%13)
5.001-50.000 biz	2	27	28	57 (%23)
>50.000 biz	1	4	2	7 (%3)
Udalerriak guztira	51	112	88	251

Lurraldearen eta demografiaren ezaugarriak direla-eta, udalerriak oso heterogeneoak dira; izan ere, hiriguneak, industrialdeak, landa-inguruak, lehen sektoreko jardueraremuak eta kostalde turistikoa aurki daitezke.

Euskadiko ekonomiaren ezaugarri nagusietako bat, bere izaera industrial da. Euskadiko industriak ekonomiaren BEG osoaren %32 sortu zuen 2002an. Gainera, gainerako sektoreetako askok lotura estua dute industriarekin eta, beraz, industriaren garapenak bideratzen du eskualdeko ekonomiaren etorkizuna.

Nahiz eta 80ko eta 90eko hamarkadetan sakonetik berregituratu zen, sektore hau gauza izan da baldintza ekonomiko berrietara egokitzeko eta zenbait enpresa garrantzitsuren itxierak eragindako krisia gainditzeko. Euskadiko industria-sektorearen susperraldi honek ekonomia osoan izan du eragina.

Euskadiko industria azken hamarkadetan asko eraldatu den arren, industria astunak paper garrantzitsua izaten jarraitzen du ekonomian, iraganean bezala. Sektore hauek produktu gordin eta astunen kopuru handiak hartu, eta erdilantutako produktu edota ekipo ondasun bilakatzen dituzte. Materialei eta energiari dagokienez, oso sektore intentsiboak dira -esaterako, adar metalikoa, mekanikoa, garraioaren materiala edota kautxua eta plastikoa-, eta ondorio nabarmenak eragiten dituzte ingurumenean.

Euskadiko jarduera ekonomikoak ingurumenean dituen ondorio larriak direla-eta, Euskadiko erakundeek (Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek) egoera saihestera eta konpontzera bideratutako ekintza batzuk bultzatu dituzte beste sektore batzuekin batera -hala nola, etxegintza eta garraioa-. Ekintza horien artean, Euskadiko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21en ezarpenari emandako babesa dago.

2. TA21 MUNDUAN ETA EUROPAN

1992an Rio de Janeiron bildutako Nazio Batuetako Ingurumenaren eta Garapenaren Mundu Konferentziak Agenda 21 delakoa hartu zuen bere dokumentu nagusi gisa. Agenda hau Ekintza Plan global zabal bat zen, zeinaren helburuak planetako ekosistemen integritasuna gordeko zuen garapen-eredurantz aurrera egitea eta egungo biztanleen eta etorkizuneko belaunaldien oinarrizko beharrak asetzea bermatzea baitziren.

Agenda 21eko printzipioak udaletan txertatu ahal izateko, beharrezkoa zen udal agintarien partaidetza eta buruzagitza. Hala, bere 28. atalean, iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Plana idaztera eta exekutatzera gonbidatzen zituen udal agintariak. Plan horrek Tokiko Agenda 21 (TA21) izena izango zuen.

Iraunkortasunaren aldeko Rioko espirituari jarraitasuna emateko, 1994an hirien eta herrien iraunkortasunerako Europako 1. Konferentzia egin zen Danimarkako Aalborg hirian. Bertan, kontinenteko 80 udalerritako 600 partaide baino gehiago bildu ziren. Marko horretan, eta Rioko Konferentzia erreferente gisa hartuta, manifestu zabal bat adostu zuten: Aalborgeko Gutuna. Dokumentu horretan, Europako hiriek eta herriek iraunkortasunerako Tokiko Ekintza Planak-Tokiko Agenda 21ak idazteko nahia adierazi zuten. Era berean, Hiri eta Herri Iraunkorren Europako Kanpaina jarri zuten abian, kontinente osoan TA21en hedapena bultzatzeko eta errazteko helburuarekin.

Johannesburgen 2002an egindako Munduko II. Gailurrean adierazi zuten I. Gailurrean iraunkortasunari begira finkatutako helburuen artean gehien aurreratu zuena Tokiko Agenda 21 zela. Horrela, berretsi egin zuten TA21ak txertatzearen aldeko apustua, hitzak ekintza bihurtzeko biderik eraginkorrenetako bat zela ikusita.

2004an, Iraunkortasunerako Hirien eta Herrien Europako IV. Konferentzia egin zuten, Aalborg+10 izenez ezagutzen dena alegia. Euskadiko udalerrri ugari izan ziren bertan. Konferentzia hartan, 'Aalborgeko Konpromisoak' direlakoak diseinatu zituzten, udalerrriek iraunkortasunaren aldeko ekintzak bultzatzeko eta zehazteko.

Hain zuzen ere Aalborgeko Gutuna izan zen, bere garaian, Euskadiko Tokiko Agenda 21eko prozesuak hedatzeko nazioarteko oinarrizko erreferentzia; gaur egun, berriz, Aalborgeko Konpromisoek betetzen dute paper hori.

3. EUSKADIN

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 eta Tokiko Agenda 21ak

Garapen iraunkorrari buruzko Euskadiko politiken lehendabiziko lorpena 3/1998 Lege Orokorra izan zen, Euskal Herriko Ingurumena Babesten duena. Bertan, garapen iraunkorra finkatzen zen EAeko ingurumen-politika ororen helburu gisa.

Legeak agintzen du airearen, uraren, lurzorua, paisaiaren, floraren eta faunaren erabilera modu iraunkorrean gauzatuko dela (1. artikulua), eta bere egiten du Garapen Iraunkorra bermatzeko konpromisoa, etorkizuneko belaunaldien beharrak betetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe (2. artikulua).

Legea onartu ondoren, Euskadiko ingurumenaren egoeraren diagnosi eta azterketa globala egin zuten. Etorkizunari begira garrantzia zerk zuen jakiteko, adituen hausnarketa eta lan-taldeen iritziak bildu zituen halaber.

Emaitzak erakusten du nolako bilakaera izan dezakeen egungo egoerak, inguru globaleko aldaketak kontuan hartuko dituen estrategia berririk definitzen ez bada. Emaitza horiek Euskadiko Ingurumenaren dokumentuan (2001) daude jasota.

Ateratako ondorio nagusienetako bat hurrengoa da:

- Ingurumen-politikak bakarrik ezin ditu ingurumenarekin lotutako arazoak konpondu. Beharrezkoa da ingurumen-helburuak politika publiko guztietan integratzea.

Egindako azterketari eta 3/98 Legearen mandatuari jarraiki, **Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020** prestatu zen, ingurumen-politika egonkor eta iraunkorra eratzeko asmoz. Hori dela-eta, 2020 urtea muga estrategiko gisa finkatu zen Europar Batasunaren strategiaren ildotik eta Rio de Janeiroko Lurraren I. Gailurrean garapen iraunkorreko strategiak zehazteko hartutako konpromisoari jarraiki.

Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategiak (GIEIE) 5 **Ingurumen Helburu** zehazten ditu, EAek epe luzean (2020) lortu nahi dituen egoerak deskribatzen dituztenak.

1. Aire, ur eta zoru garbiak eta osasuntsuak bermatzea
2. Baliabide naturalak eta hondakinak arduraz kudeatzea
3. Naturaren eta Bioaniztasunaren Babesa: sustatu beharreko balio garrantzitsua
4. Lurraldearen oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua

5. Klimaren aldaketaren eragina txikitzea

Ondoren, xede horiek zehazteko **Helburu** batzuk finkatzen dira, eta baita helburu horiek betetzeko balio kuantitatiboak eta epe zehatzak ezartzen dituzten **Konpromisoak** ere.

Modu osagarrian, eta GIEI Eri lotuta, 2002-2006 Ingurumen Esparru Programa garatzen da, GIEIE ezartzeko, segimendua egiteko eta urteko ebaluazioa egiteko tresnak biltzen dituena.

GIEI Eren garapenean ikus daiteke munduko ingurumen-arazoak konpontzeko gakoak udalerrien ekintzetan oinarritzen direla. Horregatik, GIEIEk lehentasun osoa ematen dio Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21ak martxan jartzeari. Zehazki, honako konpromisoa finkatu du: "2006rako, 5.000 biztanle baino gehiagoko EA Eko udalerriek, bakarka edo eskualde mailan, euren Tokiko Agenda 21 programa diseinatuta izatea".

Euskadiko gizartearen ikuskera ingurumenari dagokionez

GIEI Eren markoan, **Ekobarometro Soziala** izeneko tresna diseinatu zuten 2001ean. Honen bidez, Euskadiko biztanleek ingurumenari buruz daukaten ikuskera aztertzen da aldian behin. 2004an eguneratu zuten azkenekoz.

Bi azterketa horietatik ateratako ondorio nagusien artean, ondokoak nabarmentzen dira:

- Areagotu egin da ingurumenaren egoeraren inguruko ardura: Euskadiko biztanleriaren %80 oso edo nahiko kezkatuta dago ingurumenaren egoerarekin, eta biztanleen laugarren kezka nagusia da.
- Ingurumena babesteko erabakiak hartzeko mailarik egokiena udala dela irizten dute, alde handiarekin gainera.
- Udalaren ingurumen-jarduera da ondoen ezagutzen dutena, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien jarduerak baino hobeto.

Ondorio hauek, ingurumenak gizartean duen garrantzia eta ingurumena hobetzeko orduan udal agintariak duten zeresana ematen dute aditzera. Biztanleen ustez ingurumen-arloko erabakiak hartzeko mailarik egokiena udala dela islatzen dute bestalde. Horrek guztiak udalek eta TA21ek gizartearen aurrean duten indarra adierazten du.

4. ZER DA TA21 EUSKADIKO BIZTANLEENTZAT?

Tokiko Agenda 21en definizioa eta funtzioak

Tokiko Agenda 21, Euskadin, udalaren iraunkortasunera bideratutako prozesua da, eta Tokiko Ekintza Planaren bitartez artikulatzen eta zehazten da. Udal agintarien konpromiso politiko bat da, eta udalerriko ingurumen, gizarte eta ekonomia hobetzeko jarduerak biltzen dituena, hau da, biztanleen bizi kalitatea hobetzeko.


Tokiko Ekintza Plana, beraz, tresna boluntario bat da, iraunkortasunaren aldeko tokiko politikak eta kudeaketa bideratzen dituena. Udalerrian lauzpabost urteko epean burutu beharreko ekintza eta helburuen bidez artikulatzen da.

Tokiko Agenda 21ek Euskadin dituen **helburu** nagusiak honakoak dira:

1. Udalerrian ingurumenaren eta gizartearen arloan dauden **arazoak ezagutu, aztertu eta lehenestea**
2. Udaleko **ingurumen-komunikazioa hobetzea**
3. Udalerriko kudeaketan erabakiak hartzeko prozesuak hobetzea, **herritarren partaidetza** handituz
4. Udalak **ingurumenaren kudeaketan** duen ahalmena **indartzea**
5. **Epe luzean**, ingurumena, gizartea eta ekonomia hobetzeko **politikak eta jarduerak** kontsolidatzea
6. Ingurumena **kudeatzeko tresnak** eraginkortasunez aplikatzea
7. Udalerria ingurumenarekin eta gizakiaren garapenarekin **errespetuz jardutearen adibide** bilakatzea

Euskadiko Tokiko Ekintza Planak garatzean sustatzen dituzten ezaugarri nagusiak iraunkorrak, estrategikoak, zeharkakoak, parte-hartzaileak eta eraginkorrak izatea dira (ikus 1. irudia).

Horiek guztiak esplizituki edo implizituki TA21en prozesuekin lotzen diren ezaugarriak izan arren, EAEn batez ere alderdi hauek bultzatu nahi izan dira: udaletako prozesuen **zeharkakotasuna**, partaidetzarako organo iraunkorren bidez **parte-hartzea**, eta Ekintza Plana udalaren eguneroko kudeaketan sartuz bihurtzea **eraginkor**. Ahaleginak hiru alderdi hauetara bideratzen dira, bai prozesuen arrakastan eragina dutelako, bai aurretik aztertu diren beste lurralde batzuetan TA21en ahuleziak zirelako.



2. irudia: TA21-Ekintza Planetan indartu beharreko ezaugarriak

Tokiko Agenda 21 diseinatzeko prozesua

Tokiko Agenda 21eko prozesuak 3. irudian ageri diren faseak jarraituta garatzen dira: (I) Martxan jartzeko lehen fasea, (II) Diseinua (diagnostikoa eta plangintza hartzen ditu barne) eta (III) Txertaketa eta Segimendua.


Oro har TA21eko prozesuei lotutako faseak diren arren, EAEn bultzatu diren alderdiak prozesua abian jartzearekin zerikusia dutenak bultzatu dira nagusiki, eta, batez ere, ezarpenarekin eta segimenduekin lotuta daudenak. Lehen fasearen xedeak bi dira: parte hartuko duten agente guztiek konpromiso batzuk hartzea, eta ondorengo prozesua garatzen lagunduko duen lan-esparrua zehaztea. Hirugarren fasearen bidez, Tokiko Agenda 21 jarraipena izango duen prozesua izatea lortu nahi da, eta Ekintza Plana kudeaketako tresna eraginkorra izatea. Hurrengo atalean egiten zaie erreferentzia.

Irudian ikus daitekeen bezala, bere faseetan oinarritzko 3 osagai integratzeko beharra dago: **garapen teknikoa, udal-komunikazioa (teknikoa eta politikoa) eta herritarren partaidetza.**

Udal-komunikazioa eta herritarren partaidetza errazteko, hurrengo lan-organoak artikulatu dira:

- **Ingurumen edo Iraunkortasun Batzordea:** teknikariek edo/eta udaleko ordezkari politikoek osatutako taldea, prozesua sustatzeko eta bere segimendua egiteko

- **Ingurumen Foroa:** herritarren partaidetza duen organo iraunkorra. Udalerriko hainbat erakunde, agente ekonomiko eta herritar barne-hartzen ditu.



3. irudia: Tokiko Agenda 21en prozesuaren eskema

Aalborgeko Gutuna eta ondorengo Aalborgeko Konpromisoak kontuan hartuz, Tokiko Agenda 21en prozesuak udal-garapen iraunkorrari lotutako atalak hartzen ditu barnean, ikuspuntu globaletik. Zentzu horretan, hainbat arlori buruzko alderdiak biltzen ditu: ingurumena (ura, hondakinak, energia, atmosfera, zarata, lurzorua), egitura (lurraldea eta hirigintza, inguru naturala, mugikortasuna eta udal antolaketa), eta gizartea zein ekonomia (demografia, osasuna, heziketa, kultura, kohesioa eta gizarteratzea, jarduera ekonomikoa eta lan-merkatua).

Lehen fasean, EAEko Tokiko Agenda 21en prozesuak ingurumenari eta egiturari zuzenduta egon dira batez ere. Dena dela, prozesua aurreratuagoa daukaten udalerrriak, jada bigarren Ekintza Plana eguneratzen eta diseinatzen hasi direnak, gizarteari zein ekonomikoari lotutako alderdiei ere so egiten hasi dira.

Tokiko Agenda 21 ezartzeko, kudeatzeko eta segimendua egiteko eredia

Ekintza Plana, urte anitzeko planifikazio estrategikoa izateaz gain, kudeaketako tresna eraginkorra izan dadin, Euskadin aldizka aplikatu beharreko 4 operazio txertatzea komeni da, oro har TA21 kudeatzeko eredu bat osatzen dutenak:

- **IRAUNKORTASUNAREN ADIERAZGARRIEN** urteroko aldizkako kalkulua
- **PLANAREN EZARPENAREN** urteroko aldizkako **EBALUAZIOA**
- Jardueren urteko **PROGRAMAZIOA**
- **PLANAREN** aldizkako **EGUNERAKETA**


4. irudian, nola lotzen diren eta noiz garatzen diren ikusten da.

Eredu honen bidez, TA21 udal-administrazioan integratu eta indartu nahi da, diseinatzeko prozesuari jarraipena emanez. Ereduaren ezarpena errazteko, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek, hainbat ekimenen bitartez, hurrengo baliabideak ematen dizkiete udalei:

- Operazio bakoitzerako **metodologia komunak** prestatzea eta argitaratzea
- Udalerrietan **MUGI tresna informatikoa** garatzea eta ezartzea, operazio hauetako bakoitza modu integratuan kudeatzeko.
- Udalei **kanpo laguntza teknikoa** ematea adierazleak kalkulatzeko eta planak zein programak ebaluatzeko
- Planak ebaluatzeko eta adierazleak kalkulatzeko jarduera **trebatzaileak**
- Adierazleak kalkulatzeko, udalerrietan **lan-taldeak** sortzea

Udalaz gaindiko mailatik emandako baliabide hauek guztiek TA21ak txertatzen laguntzera zuzenduta daude, prozesuak udal-administrazioetan errotu daitezten.

Baliabideak eta tresnak (metodologikoak, informatikoak, trebakuntzakoak, aholkularitzakoak eta laguntza teknikokoak) komunak izatean, baliabideak aurrezten dira, eta sinergiak osatzen. Halaber, emaitza homogeneoak lortzen dira, elkarren artean konparagarriak, eta horrela udalek erraztasun handiagoak dauzkate beren burua beste batzuekin konparatzeko eta elkarri oztupoak gainditzeko irtenbideen berri emateko. Bestalde, udalez gaindiko administrazioek globalki ebalua dezakete iraunkortasun-politiken eraginkortasuna, eta errazagoa suertatzen zaie urtero identifikatzen diren beharretara egokitzea.



4. irudia: TA21 kudeatzeko eredua Euskadin

Horrekin lotuta, udal-iraunkortasunaren adierazleen sistema bat dago EAEn, hurrengo 12 adierazle komun hauek osatzen dutena:

1. adierazlea: udalerrian gune publiko irekiak eta zerbitzuak izatea
2. adierazlea: luraren erabilera iraunkorra
3. adierazlea: udal mugikortasuna eta bidaiarien garraioa
4. adierazlea: garraioko azpiegiturei zuzendutako udal-azaleraren banaketa
5. adierazlea: ur-kontsumoa
6. adierazlea: energia-kontsumoa
7. adierazlea: hondakinen sorrera eta kudeaketa
8. adierazlea: uretara egindako isurketak
9. adierazlea: ingurumena kudeatzeko sistema udalerrian
10. adierazlea: pobrezia eta gizarte-bazterketa
11. adierazlea: langabezia-tasa
12. adierazlea: herritarren poztasuna udal komunitatearekin

Egun, adierazle osagarri bat garatzen ari dira, udalerrietako klimaren aldaketari lotuta dagoena, CO₂ isurketei dagokiena hain zuzen ere.

5. AIDA ESTRATEGIA

Tokiko Agenda 21ak Euskadin ezartzeko AIDA estrategia

1999-2000 urteetako egoeran zenbait ahulgune zeuden Euskadiko udalerrien ingurumen-kudeaketari zegokionez, eta hori oztopo zen Tokiko Agenda 21en prozesuak abian jartzeko. Dena den, egoera ahul hori aukera estrategiko bat zen TA21en bidez udaletan ingurumena integratzeko. 1999an identifikatutako ahulezia nagusiak hauek izan ziren:

- Udalak paper mugatua zeukan ingurumen-politikan.
- Ez zegoen planifikaziorik udalerrietan ingurumenari lotuta egiten ziren ekintza apurretan.
- Udaletan ez zegoen ingurumen-arduradun teknikorik.
- Ez zegoen koordinaziorik Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta udalen artean.

Eusko Jaurlaritzak 2000. urtean bultzatu zuen *Euskal udalerrietan Tokiko Agenda 21ak Sustatzeko Programa*, hau da, Euskadin TA21 diseinatzeko metodologia gisa "Udaltalde 21" proiektu pilotua garatzen laguntzeko baliabide ekonomikoak eman zituen lehen ekimena. Programa hau 9 udalerritan jarri zen abian, eta udalek zeuzkaten beharrak zeintzuk ziren ikusten ahalbidetu zuen. Horretarako, jarduera ugari burutu zituzten; esaterako bilerak, parte-hartzeko tailerrak eta inkestak.

Horrela finkatu zen, 2000. urtean, AIDA estrategia: behin eskaera zehatza zein zen jakinda, erakundeen baterako lanarekin, eta lehen Udaltalde 21 abian jarrita. Estrategia honek Euskadin Tokiko Agenda 21ak ezartzea zuen xede, eta hainbat tresna edo zerbitzu aurreikusi zituen fase bakoitzerako:

- **Arreta (A)** - Udalerriek lan bakanak besterik ez dituzte egiten ingurumenaren arloan.
- **Interesa (I)** - Udalerriek interesa agertzen dute ingurumeneko arazoak modu integratuagoan konpontzeko.
- **Eskaera (E)** - Udalerriek ingurumenarekin lotutako alderdietan aurrera egitea eskatzen dute, eta euren TA21 diseinatzen dute
- **Jarduera (J)** - Udalerriak ekintzak txertatzeko fasera heltzen dira (TEPen garapena)

Helburua, Arreta segmentuan dauden udalerriak Interesera igarotzea da, gero Eskaerara eta, azkenik, Jarduerara. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek hainbat tresna sortu dituzte, 4. irudian ikus daitekeen bezala.

2000. urtean, udalerrien %7a bakarrik hasi zen bere Tokiko Agenda 21 diseinatzen, eta %1 ezartzen. Hortaz, udalerrri gehienek TA21 prozesuan murgiltzeko interesa

areagotuko zuten tresnak behar zituzten une hartan. Gai horien inguruan, IHOBEn lineako telefono bidezko informazio-zerbitzua eta Euskadiko Tokiko Agenda 21en web orria (www.ihobe.net) sortu zituzten, eta, halaber, Tokiko Agenda 21 prozesuak aurkezteko eta hedatzeko ekintza zein ekitaldi ugariekin antolatu.


2002. urtean, prozesuak garatu nahi zituzten udalerrien kopurua hazten zihoanean, hedatu egin ziren Udaltalde 21ak. Tresna berritzaileak ziren hauek, udalerriei Tokiko Agenda 21ak eskualdeka diseinatzen laguntzeko xedea zutenak. Eta beste tresna batzuk ere eskaintzen zituzten; hala nola, udalerrian prozesuak txertatzearen eta iraunkortasuna integratzearen gaineko gida metodologiko ugari.

Diseinu-fasean zeuden EAEko udalerrien kopurua handitzen zihoan heinean, zabaldu eta ugartu egin ziren fase horri lotutako tresnak; adibidez, Tokiko Agenda 21en lan-tailerrak edo udalerrri partaideen irudia sustatzeko ekintzak.

2002. urtearen amaieran asko ziren Ekintza Planak ezartzen ari ziren udalerrriak, eta hurrengo urteetan kopuru horrek azkar egin zuen gora, Udaltalde 21ak amaitzen zihoazen heinean. Udalerrri horien beharretan oinarrituz, Tokiko Agenda 21en prozesuak eraginkortasunez txertatzen laguntzeko tresna berriak sortu zituzten, diseinuaren faseari jarraipena emateko. Tresna horien artean nabarmenenak honakoak ditugu: Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea-Udalsarea 21en sorrera, Tokiko Agenda 21en urteroko jardunaldiak, ekintzarako lan-taldeak-Ekitalde 21en sorrera, sentsibilizatzeko jarduerak (Mugikortasun Iraunkorraren Astea) eta Ingurumenaren Mundu Egunaren inguruko ekintzak.

AIDA estrategia ezartzearen eraginez, Euskadiko udalerriek oso azkar eta ondo hartu dituzte Tokiko Agenda 21ak. Beraz, 2000. urtean euskal udalerrriak beste lurralde batzuetakoekin alderatuta oso atzeratuta zebiltzan arren, 2006ko irailean Euskadiko 251 udalerrietatik 218 daude Tokiko Agenda 21eko prozesuetan murgilduta, EAEko biztanleriaren %98 suposatzen dutela.


Udalerrri horietatik 138, Udalsarea 21eko kide dira -euren Ekintza Planak egin eta onartu ondoren-, eta gainerakoak Tokiko Agenda 21ak diseinatzeko fase ezberdinetan daude. Aurreikuspenaren arabera, 2006 eta 2007 urteen artean bukatuko dituzte.



5. irudia: Euskadiko udalerrien bilakaera (2000-2006) eta laguntzeko tresnen ezarpena

AIDA estrategia abian jartzean, erraz gainditu dira Ingurumen Esparru Programak Tokiko Agenda 21en ezarpenaren inguruan finkatutako helburuak.

Euskadiko udalerrien kopuruaren bilakaera TA21 prestatzeko prozesuan



ZENBATERAINO BETE DIRA INGURUMEN ESPARRU PROGRAMAKO KONPROMISOAK		
Adierazlea	IEP 2006ren helburua	2006ko egoera
Ekintza Plana duten 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien %	100	%75
Ingurumen teknikaria duten 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien %	100	%65

6. irudia: Euskadiko udalerrien kopuruaren bilakaera TA21 prestatzeko prozesuan (2002-2006)

Aurreikuspenaren arabera, Ekintza Plana duten 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrak %100 izango dira 2006ko abendurako, eta ingurumen-teknikaria duten 10.000 biztanle baino gehiagokoak %68.

Informaziorako, trebakuntzarako eta euskarri metodologikorako tresnak

AIDA estrategiak informazioarekin, trebakuntzarekin eta euskarri metodologikoarekin lotutako tresnak ere biltzen ditu, Agenda 21en inguruan arreta eta interesa sortzen laguntzeko. Geroko jardueretarako trebakuntza-baliabideak eta baliabide metodologikoak ere baditu:

- **ihobe.net web orria**

EAEko tokiko mailako iraunkortasunari buruzko informazio zabal eta eguneratua biltzen du. Informazio orokorra, berriak, jardueren agenda, baliabideen gaineko jarduerak eta jardunbide onak eskaintzen ditu.

- **IHOBE-Line zerbitzua**

Ingurumenari buruzko informazioa eta orientazioa emateko zerbitzua da, Euskadiko udal guztiei zuzendua eta dohainekoa. Udalerriko ingurumen-kudeaketa eta politikak hobetzera bideratuta dago, eta bertan udaleko ingurumen-kudeaketan eta Tokiko Agenda 21ean trebakuntza berezia daukaten adituek hartzen dute parte.

- **TA21 lan-tailerrak**

Jardueretara zuzendutako ekintza trebatzailea, oso praktikoa, EAeko udal teknikariei eta politikariei zuzendua. Administrazio Publikorako 2003-2006 Ingurumen Prestakuntza Plana-HAEEEn sartuta dago.

Urte bakoitzeko, gaikako tailerren eskaintza zabala egin da, guztiak ere Tokiko Agenda 21en kudeaketarekin (diseinua, ezarpena, adierazleak eta partaidetza) eta udal kudeaketako hainbat esparrutan (hirigintza, ura, lurra, mugikortasuna, Ingurumena Kudeatzeko Sistemak) iraunkortasuna integratzearekin lotutakoak.

Tailer bakoitzak 5 orduko iraupena eta gehienez 20 partaide izaten ditu. Azalpen teorikoa eta metodologikoa ematen dira, gonbidatutako udalerrri batek bere esperientzia kontatzen du, eta kasu praktikoa bat ebazten da.

- **Udal-iraunkortasunaren gidak eta eskuliburu teknikoak**

Udal-teknikariei eta politikariei zuzendutako argitalpenak dira, udalerrian TA21 prozesuak eta kudeaketa iraunkorra txertatzeko eskura dauzkaten tresna metodologikoen berri ematen dutenak. 2003-2006 epean honakoak eman dira argitara:

- 📄 Ekintza Planak - TA 21ak abian jartzea
- 📄 TA21en prozesuetan parte hartzeko mekanismoak abian jartzea
- 📄 Tokiko Agenda 21eko adierazleak
- 📄 Jasangarritasunerako hezteak. Eskola Agenda 21: eskolarentzako gida
- 📄 Mugikortasun Iraunkorreko Udal Planak egitea
- 📄 Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak
- 📄 TA21: aurrera egiteko komunikatzea
- 📄 Aalborg +10 konpromisoak
- 📄 Hirien plangintzetan aplikatu beharreko jasangarritasun-irizpideak
- 📄 Mugikortasunaren aldeko 250 ekintza euskal udalerrietan (ekinean mugikortasun iraunkorraren bidean)
- 📄 50 ingurumen-jardunbide egoki - udalerririak eredu (Tokiko Agenda 21 bidean)
- 📄 Ekintza Planen ebaluazioa eta kudeaketa

Elkarturik Tokiko Iraunkortasuna jartzeko bidean: Udaltalde 21

Euskadin Udaltalde 21 metodologiaren bidez diseinatu eta txertatu dira Tokiko Agenda 21ak. Hasiera batean, 2000. urtean, 9 udalerritan jarri zen abian proiektu pilotua, eta hurrengo urteetan Euskadiko udalerrri gehienetara zabaldu zen.

UDALTALDE 21 metodologia, Ekintza Planen diseinua garatzean oinarritzen da. Garapen hori lan-talde batek egiten du, honako hauek osatzen dutena: lurralde bereko -normalean, eskualde bereko- udalek, eskualdeko erakunde koordinatzailea, Eusko Jaurlaritzaren IHOBE eta dagokion Foru Aldundia. Lanaren faseak eta orientazio

metodologikoak lehen azaldutako EAEko Tokiko Agenda 21en kontzeptuari jarraitzen diote.

Diseinatzekeo prozesua, UDALALDE 21 Batzordea izeneko taldearen aldizkako bileren bidez artikulatzen da. Bilera hauetan udalerrri bakoitzean lortutako aurrerapenen, hautemandako arazoen, hartutako irtenbideen eta ingurumena hobetzeko esperientzien segimendua egiten da, eta lortzen diren emaitzak alderatzen dira.

Taldeko lanaren eredu honen abantaila nagusiak prozesuaren aurrezpen ekonomikoa, esperientziak udalerrrien artean trukitzea eta informazio pribilegiatua eskura izatea dira.

Gobernuak eta foru aldundiek bultzada, koordinazioa eta laguntza ekonomikoa zein teknikoa ematen dute; udalek, berriz, bultzada politikoa eta giza baliabide zehatzak.

2006ko irailean, 18 dira prest dauden Udaltalde 21ak (151 udalerrri) eta 10 horretarako bidean daudenak (64 udalerrri).

Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea: Udalsarea 21en sorrera eta garapena

Udalsarea 21 (US21) administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzak bultzatzeko foro bat da, udaletan iraunkortasuna sustatzeko xedearekin. Funtsean lan-talde bat da, udalerrietan Tokiko Agenda 21 ezartzen laguntzen duena.

Honako hauek osatzen dute sarea: Tokiko Agenda 21eko gaietan aurreratuen dauden udalek; Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek; IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak (Sareko Idazkaritza Teknikoa) eta Eudel-Euskal Udalerrien Sareak. Hau da, tokiko administrazioek eta udalaz gaindiko maila administratibo guztietako ingurumen-departamentuek.

Erakunde ugari biltzen dituen egitura zabal honen bidez, Udalsarea 21ek iraunkortasunerantz aurrera egiten laguntzen duten eragile gehienak batu nahi ditu, EAE osoan maila anitzetan jarduteko.

Sareko benetako protagonistak udalerrriak dira. Hain zuzen ere hauek izan behar dute US21en esparruan abian jarritako jarduerak eta ekintzak zuzendu behar dituztenak. Gainerakoak udalerriei iraunkortasunerako ekintzetan laguntzen aritzen dira.

Sarea 180 udalerrrik osatzen dute gaur egun (2007ko martxoa) (Arabako 11, Bizkaiko 103, Gipuzkoako 66), eta kide diren udalaz gaindiko administrazioek (Eusko Jaurlaritza, IHOBE, foru aldundiak eta EUDEL).

Udalerrien sareko kide izateko, hurrengo baldintzak bete behar dira:

1. Aalborgeko Gutuna eta Euskadiko Iraunkortasunaren aldeko Konpromisoa sinatzea.
2. Oso Bilkurak Ekintza Plana onartzea.
3. Urteko kuota ordaintzea.
4. Dagozkien batzordeetara joango diren kargu teknikoak eta politikoa izendatzea.
5. Herritarrek parte hartzeko kanal egonkorrak izatea.

Udalsarea 21 2002. urtean sortu zen, Garapen Iraunkorraren 2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategiak ezarritako markoan. Behin Agenda 21 diseinatuta, iraunkortasun lokaleko prozesuak abian jartzekotan ziren udalerriei erantzuna ematea zuen helburu.

2002. urtearen amaieran, sarearen helburuak eta ekintzak zehaztu zituzten. Kide guztiek hartu zuten parte diagnostikoa eta plangintza osatzen, eta horrela 2003-2005 Plan Estrategikoa sortu zuten. Lehendabiziko Plan honetan, sareak lehen hirurtekoan izango zuen zeregina, helburu estrategikoak eta ekintzak finkatu zituzten, eta hortik aurrera Kudeaketa Planen bidez joan dira urte bakoitzekoak zehazten.



1. irudia: Udalsarea 21en Plan Estrategikoa diseinatzeko eta garatzeko prozesua

Planak honako alderdiekin lotutako 6 helburu estrategiko zehaztu zituen:

- 1: Trebakuntza teknikoak eta metodologikoak
- 2: Partekatutako baliabideak
- 3: Komunikazio teknikoak eta udalaz gaindiko politiketan eragina
- 4: Finantzatzeko ahalmena eta proiektu komunak
- 5: Heziketa eta gizartearen partaidetza
- 6: Estatuko eta nazioarteko sareekin eta kanpainekin elkarlana

Helburu horiek 2003 eta 2005 urteen artean egin beharreko 49 jardueren bidez ziren lortzekoak. Gerora, urtero joan ziren programatzen, Kudeaketa Planen markoan. Zabalpen horrek oso kontuan hartu ditu partekatutako baliabideak (informatzaileak, trebakuntzakoak, metodologikoak eta informatikoak), eta eskalako sinergiak eta ekonomiak, berrikuntza eta udalaren eskaerari egokitzea bultzatu ditu.

Sarearen hasierako definizioa ematean, sareak funtzionatzeko eredia ere ezarri zen. Hala, Batzorde Exekutiboa, Batzorde Teknikoa eta Idazkaritza Teknikoa sortu ziren, eta geroago Ekitaldeak, Batzorde Teknikoaren osagarri.

ORGANOA	KIDEAK	ZEREGINAK
BATZORDE EXEKUTIBOA	Udaletako, Eusko Jaurlaritzako, foru aldundietako eta EUDELeko ordezkari politikoak.	Sarea bultzatzea eta bere buruzagitza politikoa lortzea Estrategia Plana, Kudeaketa Planak eta urteko aurrekontuak onartzea
BATZORDE TEKNIKOA	Udaletako eta udalaz gairikoko administrazioetako ordezkari teknikoak	Sarea bultzatzea eta bere buruzagitza politikoa lortzea Kudeaketa Planak diseinatzea Jarduerei aldizka jarraipena egitea Erreferentziako barne-komunikazioaren markoa
IDAZKARITZA TEKNIKOA	IHOBEk izendatutako teknikariak	Sareak funtzionatzeko laguntza Kudeaketa Planen dinamizazioa eta txertaketaren jarraipena Zerbitzuak eskaintzea Kanpoko interlokuzio teknikoak
Ekintzarako lan-taldeak - EKITALDE 21	Udaletako eta udalaz gairikoko administrazioetako ordezkari teknikoak	Udalerrak komunikatzea eta elkarren artean esperientziak trukitzea Ekintzaren bidez ikastea Sarerako materialak eta baliabideak garatzea Udalaren kudeaketarako erreferentzia eta euskarria den elementua

1. taula: Udalsarea 21eko funtzionamendu-organoak


Ekitalde, Udalsarea 21en helburuak lortzeko lan-foro nagusia da, eta baita udalaren ekintzen dinamizatzaile nagusia ere. Era berean, udalak komunikatzeko, ikasteko, laguntzeko eta ekiteko gunea ere bada.

2005ean, honako Ekitalde hauek jarri dira abian:

- Ekintza Planak abian jartzea
- Erosketa berdea: Liburuxka teknikoetan iraunkortasunerako irizpideak sartzea
- Inguru naturala
- Hondakinak
- Erronka berriak. Tokiko Agenda 21en prozesuak onartzea
- Gizarteko alderdiak (I eta II)
- Udalerria eta Klimaren aldaketa
- Udalerria eta enpresa
- Adierazleak udalerrri txikietan

Batzorde Teknikoa lan-talde egonkorra eta iraunkorra da, udal teknikari guztiak aldizka harremanetan jartzen dituena, udalaz gaindiko ekimenez, jardunbide egokiez eta sarearen segimendu orokorraz mintzatzeko. 2002an sortu zenetik, 21 bilera egin dituzte, batez beste 70 partaiderekin. Egun, bi edo hiru hilero biltzen dira, Euskadiko udalerrri ezberdinetan.

Funtzionamendurako organoekin batera, barne-komunikaziorako mekanismoak ere badaude; esaterako, bihileko buletin elektronikoa edota kideen gaineko informazio eguneratua ematen duen web orria. Horrekin guztiarekin, barne-komunikaziorako eredia ezarri eta indartu da, eta oso erabilia izan da sortu zenetik. Eredue horren helburuak honakoak dira: udalerriei informazio erabilgarri eta eguneratua ematea, Tokiko Agenda 21 kudeatu dezaten; kideen artean ezagutzera ematea; sarearen kultura sustatzea; sareko partaide izatearen sentimendua indartzea eta, zeharka, EAEko Tokiko Agenda 21eko teknikarien arteko sare informaleen sorrera eragitea.



8. irudia: Sarearen barne-komunikaziorako eredia

Udalsarea 21ek garatutako jarduerak eta ekimenak

Hiru urte hauetan, Udalsarea 21ek hazkunde azkarra eduki du, urtero kide berriak hartu baititu: hasieran 16 izatetik, egun 138 kide izatera pasatu da. Era berean, bere zerbitzuak finkatzen joan da, eta bere lehenengo Plan Estrategikoa nabarmen garatu da.

9. irudian ikusten den bezala, epealdi honetan nabarmentzekoa da prestaketa teknikoari eta metodologikoari lotutako jarduerak erabat ezarri izana, eta baita Estatuko zein nazioarteko sareekin eta kanpainekin izandako lankidetzaren ingurukoak ere.

Lehenengo artean, Tokiko Agenda 21en ezarpenarekin lotutako gida metodologiko ugariren argitalpena eta udal-kudeaketan iraunkortasun-irizpideak txertatu izana aurki daitezke, eta baita trebakuntzako ekintzak ere, esaterako tailerrak eta jardunaldiak.

Bestalde, kanpoan izaniko proiektioari dagokionez, lankidetzaren egonkorra du Estatuko hainbat sare baliokiderek, esaterako Kataluniako Xarxa, Nafarroako Rnels eta nazioarteko ICLEIekin. Bestalde, indartu egin da bere identitatea, garapen iraunkorrarekin lotutako kongresuetan eta nazioarteko beste topaketa batzuetan parte hartuta.



9. irudia: Udalsarea 21en 2003-2005 Plan Estrategikoaren ezarpen-maila, helburu estrategikoen arabera

Nabarmena izan da, halaber, partekatutako baliabideen sorrerarekin, barne-komunikazioaren sustapenarekin eta Tokiko Agenda 21eko proiektuen finantzazio-ahalmenaren gehikuntzarekin lotutako ekintza planifikatuen ezarpen maila.

Bestalde, heziketarekin eta gizartearen partaidetzarekin lotutako ekintzak dira garapen-maila handiena izan dutenak. Hauen artean nabarmenenak EAEko udalerrietako mugikortasunaren astea edota Eskola Agenda 21en sustapena bezalakoak izan dira.

Udalsarea 21en etorkizunerako apostua: 2006-2009 Plan Estrategikoa

2006ko udaberrian, sarearen 2006-2009 Plan Estrategikoa prestatzen hasi dira, ekintzak eta funtzionatzeko modua inguru berriari egokitzeko -asko baitira, eta oso anitzak, kide diren udalerriak- eta udalerrietan iraunkortasunaren inguruko politketan sortzen diren eskaerei moldatzeko.

10. irudian Plan Estrategikoa sortzeko prozesuko faseak eta zereginak ikus daitezke. Planeari arlo teknikoak eta barne-komunikaziorako zein partaidetzarako arloak konbinatu dira.

I. EGOERAREN AZTERKETA

2002-2005 Plan
Estrategikoaren ebaluazioa

Barneko eta kanpoko egoera
Nazioarteko erreferenteak

Interes-taldeen
beharrak eta nahiak:
ELKARRIZKETAK

II. DIAGNOSTIKO ESTRATEGIKOA (DAFO)

III. FORMULAZIO ESTRATEGIKOA (2006-2009)

Plan Estrategikoaren zirriborroa + Zerbitzuen katalogoa

Web galdetegia

Udalsarea 21 Batzorde Teknikoaren
agiriaren azterketa

BATZORDE
EXEKUTIBOA

Plan Estrategikoa + Behin betiko zerbitzuen katalogoa

IV. GARAPEN EREDUA ETA PLANAREN SEGIMENDUA

10. irudia: Plan Estrategikoa egiteko prozesua (2006-2009)

Prozesuaren emaitza gisa, hurrengo **ZEREGINA** finkatu da 2006-2009 eperako:

Tokiko Agenda 21eko **Ekintza Planak** eraginkortasunez ezar daitezela bultzatzea, eta udalerrietako kudeaketaren arlo guztietan **Aalborgeko konpromisoekin** bat datozen **iraunkortasun-irizpideak txertatzea**. Horrela, EAeko udalerriek garapen iraunkorreko politiketan duten papera eta euskal gizartean duten inplikazioa indartu nahi da.

Sarearen apustu estrategikoa **IKUSPUNTU** batean zehazten da; hau da, plangintza estrategikoaren amaieran (2009) **UDALSAREA 21** nola ikusi nahi den azaltzen da, hurrengo moduan:

Udalsarea 21, EAEn **Aalborgeko konpromisoak** betetzea bultzatzen duen udalerrien sarea da. Sare hori **jardunbide egokien** eredu da nazioartean.


Ikuspuntu horrek bi helburu edo **HELBURU ESTRATEGIKO** bete beharra suposatzen du:

- ✓ Tokiko eskalan, **iraunkortasunaren bultzatzaile** bihurtzea
- ✓ Tokiko iraunkortasuneko **jardunbide hobeen erreferentzia** bihurtzea

Sareak hurrengo 4 urteetan izango duen garapenaren formulazio estrategikoan oinarrituz, honako 7 **HELBURU OPERATIBOAK** zehaztu dira Udalsarea 21erako. Helburu hauek aurrez finkaturiko zeregina, ikuspuntua eta xede estrategikoak betetzen laguntzera zuzenduta egon behar dute, sarearekin lotutako balioekin bat etorritik.

1. Udal-kudeaketan TA21ak eta iraunkortasuna integratzean, **AHALMEN TEKNIKOA** eta **METODOLOGIKOA** bultzatzea.
2. Udalei elkarren artean partekatuzko **ZERBITZUAK** eta **BALIABIDEAK** eskaintzea.
3. Udalen arteko eta hauen eta beste administrazio publikoen arteko **KOOPERAZIOA** eta **KOMUNIKAZIOA** areagotzea.
4. **SAREAREN ANTOLAKETA** eta **ZERBITZU** teknikoak eta informatzaileak indartzea.
5. Beste **SARE BATZUEKIN KOOPERAZIOA** sustatzea.
6. Iraunkortasunaren baloreetan **HEZTEA** eta gizartearen **PARTE HARTZEA** bultzatzea.
7. **ANTOLAKETA** eta **UDAL BALIABIDEAK** indartzea.

Helburu horiek 2006-2009 aldirako programatutako 35 jardueratan daude islatuta, hau da, Udalsarea 21ek udalerriei eskaini beharreko **ZERBITZUEN ZORROAn**. Hauen osagarri, udalaz gaindiko beste administrazio batzuek sareari eskaintzen dizkieten zerbitzuak daude, US21en helburuak lortzen laguntzeko. 11. irudian agertzen diren zerbitzuen kategoriatan dago egituratuta zorroa.



11. irudia: Udalsarea 21eko zerbitzuen zorroa

KATEGORIA	ZERBITZUAK
INFORMATZAILEAK (6)	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sarearen web orria 2. Barne-buletin digitala 3. Aldizkari digitala 4. EAeko iraunkortasun-behatokiak 5. Jardunbide egokien katalogoa 6. Adierazleak kalkulatzeko datuen esportazioa
HEZITZAILEAK (5)	<ol style="list-style-type: none"> 7. Gaikako jardunaldiak 8. Gaikako ikastaro teknikoak 9. Jardunaldi hezigarriak aukeran 10. Ordezkarri politikoentzako ikastaroak 11. Beste sareekin jardunaldi eta bisita hezigarriak
METODOLOGIKOAK (2)	<ol style="list-style-type: none"> 12. Eskuliburu eta gida metodologikoak 13. Erreferentziazko arauen ereduak prestatzea
INFORMATIKOAK (2)	<ol style="list-style-type: none"> 14. MUGI 21 instalatzea eta berau erabiltzeko laguntza teknikoa 15. TA21 kudeatzera zuzendutako MUGI 21 erabiltzeko heziketa

FINANTZARIOAK (5)	16. Sentsibilizatzeko eta parte hartzeko ekintzei zuzendutako laguntza ekonomikoa 17. TEPetarako finantzazio-bideak bilatzea 18. Europako proiektuetarako proposamenak lantzea 19. Udalerrien arteko proiektuen finantzazio-kidetza
AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOAK (7)	20. Planak urtero ebaluatzea eta programatzea 21. Planak berrikustea 22. Adierazleak kalkulatzeko 23. Parte hartzeko prozesuak diseinatzea eta garatzea 24. Kudeaketako alorretan aholkularitza eta laguntza ematea 25. Proiektu berrizaleak gauzatzen laguntzea
ESKER ONEN ZERBITZUA	26. Prozesuen kalitatea eskertzeko ekitaldi publikoak 27. EAEtik kanpoko ekitaldietara joateko euskarria

2. taula: Udalsarea 21eko zerbitzuen zorroa

Azkenik, segimendua egiteko eta urteko ebaluazioa egiteko eredu bat jasotzen du Planak. Eredu hau emaitzen adierazleen sistema batean dago oinarrituta, eta bi adierazle finkatu ditu: helburu estrategikoaren arabera bat, eta helburu operatiboaren arabera bestea. Sistema honek jarduera maila urtero ebaluatzeko aukera eman behar du, eta Kudeaketa Planak prestatzen lagundu.

6. ONDORIOAK

Aurretik azaldutakoa kontuan izanda, Euskadin TA21ak abian jarri zirenetik 6 urtetan lortutako ondorio nagusiak aurkezten dira jarraian, hau da, izandako oztopo nagusiak eta etorkizunerako erronkak.

TA21 ABIAN JARTZEKO ORDUAN IZANIKO OZTOPOAK:

- 1. Askotan, oso ahulak ziren udaletako egiturak eta giza baliabideak, edo ez ziren existitzen.** Udallerri askotan ez zegoen ingurumen edo iraunkortasun-teknikaririk, edota aldi baterako besterik ez zeuden, eta horrek zaildu egiten zuen prozesuak kontsolidatzea eta hauen jarraipena egitea. Hala ere, udalerririk elkarrekin aritzean, udalerririk horietan guztietan batera arituko ziren teknikariak kontratatzeke aukera zegoen, eta horrek nolabait orekatu egiten zuen egoera.
- 2. Barne-nagusitasun politikoa ez da beti behar bezain sendo, zabal eta jarraia izaten.** Tokiko Agenda 21ek, hainbat zinegotzigotan duenez eragina, zenbait kargu politikok -batez ere alkatetzak- modu jarrai eta partekatuan parte hartzea eskatzen du. Dena den, gainerako zinegotzien partaidetza baxua da oro har, eta kasu askotan hasierako diseinu-fasera mugatzen da.

3. **Zaila da TA21 udal antolaketan zeharka integratzea.** Ekintza Planak erabat txertatzeko, udal-eragile ugariaren eta anitzen partaidetza behar da. Baina oztopo handiak ikusten dira udal teknikariak inplikatzeke orduan eta, horrez gain, informazioa eta sentsibilizazioa, bultzada politikoa, koordinazioa eta barne-komunikazioa ez dira nahikoak izaten.
4. **Zailtasunak antzematen dira udal teknikariek Ekintza Plana kudeaketa-tresna eraginkor gisa erabiltzeko orduan.** Urte anitzerako izaki, eta ez direnez beti Ekintza Planen kudeaketari egokituta egoten, teknikariek eta politikariek ez dituzte eguneroko kudeaketan eta aurrekontuak egiterakoan kontuan hartzen; aitzitik, batez ere berehalakoan konpondu behar dituzten arazoei begira jarduten dute.
5. **Ohikoa da partaidetza-prozesuetan herritarren mobilizazioa eskasa izatea.** Zailtasunak egoten dira herritarrei prozesuak ezagutzera ematean; batzuetan, gainera, zaila izaten da prozesu horiek ulertaraztea. Biztanleria prozesuetan parte hartzeko mobilizatzea ere zaila izaten da; izan ere, ez dago parte hartzeko kulturarik, eta ez da erraza izaten udalerraren etorkizunari buruzko hausnarketan parte hartzea.

ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Datozen urteetarako erronka nagusien artean, hurrengoak daude:

1. **Tokiko Agenda 21 udal-kudeaketarako tresna eraginkorra izatea** eta etengabe hobetzea.
2. Pizgarrien eta eskakizunen bidez, **prozesuen kalitatea** sustatzea, TA21en eta Udalsarea 21en irudia kaltetzea saihestuz.
3. Udalerriek egindako esfortzuak **jendaurrean ikustarazteko** esparrua ezartzea.
4. TA21ak ezartzeko emandako **baliabide ekonomikoak mantentzea** eta udalerrien kopuru handi eta anitzari **egokitutako zerbitzuak** ematea.
5. Iraunkortasunaren adierazleak eta ekintza-planak ebaluatzen dituzten **iraunkortasunaren behatokia** garatzea.
6. Tokiko Agenda 21 txertatzean **partaidetza-prozesuak** hobetzea eta bultzatzea.